BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

214

EBAZPENA, 2011ko azaroaren 9koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendariarena, administrazio-espediente bat bidaltzeko eta prozeduran interesdun direnak epatzeko dena.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegiak eskatu du Miren Eukene Martínez Madariaga andreak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren ondorioz sortutako 295/2011-D prozedura laburtuari buruzko administrazio-espedientea. Errekurtso hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2011ko maiatzaren 11ko Aginduaren aurka jarri zen, zeinen bidez argitaratzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden maisu-maistren kidegoko irakasle-funtzionarioak lekuz aldatzeko lehiaketan esleitutako behin betiko destinoak (2011ko ekainaren 2ko EHAA).

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 49.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskatutako administrazio-espedientea Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegira bidaltzea.

Bigarrena.– Prozeduran interesdun direnak epatzea, beren interesak defendatzeko egoki iritziz gero prozedura horretan demandatu gisa pertsona daitezen. Horretarako, bederatzi eguneko epea izango dute, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 9a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.